

Bidebieta

# «Kooperazioak betirako konprometitzen zaitu»

Egunotan kooperazioari buruzko jardunaldiak egiten ari dira Kontadores gaztelekuan. Martxoaren 31n Patricia Esparza boluntarioa hizlari ariko da. Berarekin solastu gara.

Non eta noiz ibili zara boluntario?

Duela bost urte, medikuntza ikasten ari nintzela, Peruko Abancay hirian bi hilabete eta erdiz egon nintzen ikaskide batzuekin. Dena dela, aurretik ere banuen jakinmina kooperazioari buruz. Perutik itzuli nintzenetik Medicus Mundi-n ibili naiz eta orain Adsis izeneko fundazioan nabil.

Zein eginkizun izan zenituen Perun?

Goizez, osasun etxean eta erietxean lan egiten genuen eta arratsaldez, umezurtzetxean eta zaharren egoitzan. Horrez gain, hilabetean behin, apaiza urrun zeuden herrietara bataioak, hiletak eta ezkontzak egitera joaten zen eta guk lagundu egiten genion. Berak elizkizuna egiten zuen bitartean, guk behin-behineko osasun etxe moduko bat antolatzen genuen bertakoentzat.

Zer ikasi zenuen bertan?

Medikuntzari dagokionez, ez gehiegi. Ikasle soilak ginen eta 'adabakiak' jarri genituen, gehienbat; azaleko lana izan zen. Bestalde, han zaudela, egun osoa lanean pasatzen duzenez, ez duzu pentsatzeko astirik ere. Horrexegatik,



etxera bueltatutakoan, gogoe-ta egin nuen. Hau da, Perun bi hilabete pasatu nituen arlo jakin batean lanean, eta ez nuen egoera ekonomikoa eta sozialean sakontzerik izan. Handik itzulitakoan, ordea, gogoe-ta egin eta errealtatea aztertzen eta zorrotza izaten ikasi nuen.

Era berean, diruaren balioaz nuen ideia aldatu nuen. Joan aurretik, dirua arazo guztietarako irtenbidea zela uste nuen, baina ez da hala. Izan ere, han pobrezia ez da soilik ekonomikoa. Balioetara, gizarte-egiturara eta beste hainbat eremutara ere zabaldua dago txirotasuna. Finean, saminarekin eta gizarte desegituratu batekin topo egiten duzu han, eta horrek guztiak betirako konprometitzen zaitu. Garapen bidean dagoen herrialde batean egoteak agerian uzten du primeran bizi garenok gutxiengo garela munduan.

Zein bilakaera dago kooperazioaren mugimenduan?

Lehen, garatutako herrialdeak, beraien proiektuekin, zuzendari gisa joaten ziren garapen bidean zeuden herrialdeetara. Nire ustez, gaur egun, kooperazio proiektuak garapen bidean dauden herrialdeen esku uzten ari dira poliki-poliki. Adibidez, Perun izan eta gero, Medicus Mundi-n ibili nintzen, eta erakunde horrek hemengo medikuak hara bidali ordez, hango medikuak gurera ekartzen ditu hezitzeko, ondoren beraien herrialdeetan hemen ikasitakoak gara dezaten.

Zein aholku emango zenieke boluntario izan nahi duten gazteei?

Batez ere komunikabideetan jasotzen dugun informazioak baldintzatuta bizi garen honetan, munduaren ikuspegi erre-alagoa izateko lagungarria dela kooperazioa. Edonora joateko, bestalde, alde aurretik lekuari buruzko ahalik eta informazio gehien jasotzea eta zertara doazen argi izatea aholkatuko nieke.

## euskararen donostia



### Antzerkia

- **IV. Donostia Antzerki Saria**
- **Martxoaren 27an**  
Sari-emate ekitaldia Gorringo taldearen "Kutsidazu bidea" jaxbel" 20.00etan Antzoki Zaharrean
- **Martxoaren 28an**  
Lan sartua eskainiko da Tanttakaren "1937" 20.00etan Antzoki Zaharrean

### Ipuinaren

#### ordua

- **Ipuin zopa koskorro magikoekin**  
Martxoaren 30ean, 18.00etan  
5 urtetik gorakoentzat Amarako Ernest Lluch kultur etxean
- **Belardo eta Andersenkeriak**  
Maitin, Marrakzi tailerra  
Martxoaren 31n, 18.00etan Intxaurrondo Berri kultur etxean
- **Erregearen traje berria**  
Joserra Fachadok Irakurriko du 3-5 urte bitartekoentzat Apirilaren 1ean, 18.00etan Alza kultur etxean  
Apirilaren 2an, 18.30etan Loiolako kultur etxean
- **Ipuin musikatuak**  
Patxi Hernandez ipuin kontalaria  
Apirilaren 2an, 18.00etan Amarako Ernest Lluch kultur etxe-ko Hautxotekan